

1199 – C2 MAILA – IRAKASLEEN GAIKUNTZA

Agurtzane Goñi Zugarramurdi

Ikastaroa planteatuta dago C2n hasi berriak diren irakasleentzat, edo C2 agiridunak izan arren C2ko eskolak ematen hasi gabeentzat. Ikastaroaren helburu nagusia da irakasle horiek prestatzea C2ko eskolak emateko.

Ikasgela (www.irakasbil.eus > NIRE IKASTAROAK)

Helburuak

Helburu orokorra:

C2 mailako eskolak emateko gaitzea.

Helburu zehatzak:

- Edozein ekintza komunikatibori aurre egiteko kontuan izan behar diren aldagaiak (testuingurua) barneratzea.
- Ekintza komunikatibo ezberdinetan erabilitako estrategiak identifikatzeko gauza izatea. Bestela esanda, testu-hustuketan trebatzea.
- Ikasleek ekoiztako testuak (ahozkoak zein idatzizkoak) hobetzeko estrategia egokienak zein izan litezkeen proposatzeko konfiantza izatea.
- Egokitutako ikastaroaren ezaugarriak eta ikaslearen beharrak kontuan izanda, materiala egokitzeko, sortzeko eta baztertzeke ekimena izatea.
- Egoera komunikatiboa zehaztu ondoren eta komunikazio-estrategiak baliatuz, ekintza komunikatibo jakin bat gauzatzea.

Edukiak

- Testu-arkitektura
 - Ikastaroaren ikuspegi orokorra aurkeztu
 - Testu-arkitektura
 - Testu-ereduak aztertu: testu-hustuketa

- C2 mailako testuak hobetzeko baliabideak

- Unitate didaktikoak (aurkezpena eta azterketa)

- Testuen azterketa eta balorazioa

Egokitasuna eta zuzentasuna baloratu (binaka, launaka, taldean).
Hobetzeko proposamenak egin eta aholkuak eman

- Hobetutako testuen azken bertsioak partekatu, konparatu eta ondorioak atera

- Testu-azterketa praktikoa

Hainbat testuren lanketa azaldu: identifikatu eta interpretatu landutako edukiak
Testuak manipulatu: testuinguru ezberdinetara egokitu

Metodologia

- Aurrez aurreko mintegiak gauzatuko dira, bakarkako lanarekin osatuta.
- Hausnarketa, elkarreragina eta parte-hartzea bultzatuko da.
- Oinarrizko dokumentuen irakurketa eta lanketa proposatuko da.
- Balorazioa: zailtasunak, aukerak...

Ebaluazioa

Ikastaroan gauzatuko diren eginkizunetan oinarrituko da ebaluazioa: azken saioan aurkeztutako testu baten hustuketa-lana eta unitate didaktikorako proposatutako lanketa hartuko dira kontuan.